

# Justinianoren izurriaren interpretazioak



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**K**onstantinopla, 542ko maiatza. Prokopio Zesareakoaren arabera, bi urte lehenago Etiopian piztutako izurria Bizantziar inperioaren hiriburura iritsi zen. Lau hilabetetan 300.000 hildako eragin omen zituen, hiriko populazioaren erdia inguru. Bizantziok gain, izurri pneumonikoak Europa, Asia eta Afrikako hainbat eskualde hartu zituen eta, guztira, 25-50 milioi pertsona hil ziren horren ondorioz, garai hartako munduko populazioaren %13 eta %26 artean. Horrenbestez, inoizko pandemiarik larrienetarikoa izan zen.

Teknologia eta aurkikuntza berriek bertsio hori zalantzan jarri dute azkenaldian. Batetik, ikerketek diote jatorria Txinan izan zuela izurriak. Bestetik, berriki, *Yersinia Pestis* bakterioaren DNA arrastoak ikertuta, jakin dugu izurria Britainiar uhartetara iritsi zela Konstantinoplara baino lehen. Horrek esan nahi du gaixotasuna azkarrago eta bortitzago zabaldu zela iparraldetik, Mediterraneoan baino. Edo, beste modu batera esanda, Bizantziar Inperioan uste baino eragin txikiagoa izan zuela.

Ondorio horretara iritsi zen Jean Durliat historialaria 1989an. Durliaten arabera, oso zaila zen izurriaren azterketa orokorra egitea, eremu geografiko eta kultural zabal eta anitza aztertzea eskatzen zuelako. Durliat bera horretan ahalegindu zen, testuez gain, artelanak eta iturri arkeologiko, epigrafiko, paleografiko eta numismatikoak aztertuz, eta



Justiniano enperadorea eta bere gortea, Ravenako San Vitale elizako mosaikoan. Izurriak haren izena hartu zuen, pandemiak bereziki bere agintaldian Bizantziar Inperioa astindu zuelako.

ondorioztatu zuen izurriak eragindako hondamendia ez zela hainbesterako izan.

Hainbeste iturri aztertzeak dakartzen zailtasunak arindu dituzte teknologia berriek. Azken urteotan, besteak beste bilaketa motorrak erabiliz, izurriak izan zuen pisua neurtu nahi izan dute ikerlariak. Hala, 2019an eta 2020an hainbat ikerlan argitaratu ziren, Durliaten interpretazioarekin bat egiten dutenak: “Garrantzi gutxi-ko” pandemia izan zela esatera iritsi dira, “egungo gripe agerraldien antzekoa”.

Berriki, Cambridgeko Unibertsitateko Peter Sarris historialariak beste ikerlan

bat argitaratu du *Past & Present* aldizkarian. Bertan, azken ikerlanen eszeptizismoa kritikatu du. Esaterako, bilaketa motorren bidez iturrien kantitatea bai, baina kalitatea ez dela kontuan hartzen adierazi du. “Pandemiak eragina izan zuen egitura sozialetan, baliabide ekonomikoen banaketan eta baita pentsamoldeetan ere. Eta egun hortik asko dugu ikasteko”.

Hortaz, oraingoz, aurkikuntza eta datu berriek, zalantza bat argitzen lagundu arren, nagusiki muturreko interpretazioak elikatzeke balio izan dute. ●

## Inperioaren txanponak urrun...

Errusian, Tula hiritik gertu brontzezko 140 txanpon erromatar aurkitu dituzte. Beste toki batzuetan askoz multzo handiagoak eta kalitatez hobeak aurkitu izan dituzte. Baina txanponok Inperioaren mugatik 1.000 km-ra aurkitu dituzte, eta gainera, Antiokian eginak dira, Tulatik ia

3.000 km-ra. Horixe da ikerlariak harritu dituen. Kulikovo Pole Museumekeo adituek ez dute uste erromatarrek eremu haietan interes komertzialik zutenik eta beste hipotesi bat dute: erromatarrek mugak zaintzeko kontratatzen zituzten merzenario barbaroren baten soldata zela. ●

